

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak, enpresa bati, bere balio-proposamenerako eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea ahalbideratzen diotenak dira.

Gure enpresaren kasuan, hainbat funtsezko baliabide izango genituzke. Lehenik gure baliabide fisikoak: Uxueren osabak, hutsik duen pabiloi bat izango litzateke, bera prest baitago hau uzteko, argia eta ura guk ordaintzen badugu. Ordenagailuak ere baditugu, bakoitzarentzat berea, hauek, bizi garen garaian oso garrantzitsuak dira edozein arlotarako. Telefono mugikorrek ere guztiok dauzkagu, elkarrekin komunikatzeko eta amaitzeko, hasierako probak egiteko, sasietatik, Lazkaoko gimnasiotik eta ezagunen etxeetatik, beharrezkoak ez zituzten kirol tresnak hartu ditugu, hauekin probak egiteko eta gure prototipoa aurrera atera ahal izateko. Furgoneta berriz erosi egin beharko genuke, eta hasieran gastu handiegirik ez izateko, 2 eskuko bat erosiko genuke.

Gure baliabide intelektualak eta giza baliabideak berriz, ezberdinak dira; Maddiren diseinuak eta produktuari publizitatea egiteko gaitasuna hauek paperera pasatzean; Uxueren ezagutzak, interneteko orria sortzeko garaian eta diseinatzerakoan; Daniren sormena eta jakinduria makinak sortzeko orduan eta Malenen salmentarako eta antolaketarako abileziekin osatzen ditugu.

Amaitzeko, gure finantza baliabideak, dauzkagun aurrezkiak izango lirateke, baita gurasoek bakoitzari utziko diguten diru kopuru bat, eta agian bankuari kreditu txikiren bat eskatu beharko zaio, baina hasieran ez behintzat, diseinua sortzeko makina zaharrak eta pabiloia badaukagulako.